

ZARAUTZ / Liburutegi Egun honetan, hurrei zuzendutako tailerra Sanz Enea liburutegian

DV. Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak antolatutako proiektuak kultur arteko integrazioa sustatzea du helburu. Sanz Enea liburutegiak, beste 17 liburutegirekin batera, proiektuan parte hartuko du.

Gaur, ostirala, urriak 24, Liburutegi Eguna dela eta, aurtengo Irakurri Kanpainari ekingo zaio, Liburutegiak topaleku lelopean, eta helburu hau izango du, liburutegia kultura guztien arteko errespetua sustatzeko tokia eta kultura ezberdinen arteko elkartokia izatea.

Beraz, lehenengo ekimena gaur bertan, 17:00etatik 19:30era burutuko da. Sei eta hamabi urte bitarteko hurrei zuzendutako tailerra da. Haur bakoitzari irakurpuntu bat emango zaio, bakoitzak bere izena hainbat hizkuntzatan, eta grafia desberdinekin, idazteko aukera izango du.

Bestalde, irakurketa gida bat proposatu dute, Haiena, gurea: tolerantziarako irakurgaiak. Bertan 50 titulu hautatu dituzte: guztiak berdintasun, tolerantzia eta aniztasunari buruzko narrazio eta ipuinak. 0-4 urte bitartetik hasi eta helduekin bukatu arteko aukera dago.

Dokumentu horiek Sanz Eneako liburutegian egongo dira, nahi duten guztien eskura.